

**Elortzibarko Udalaren zerbitzurako euskara teknikari lanpostua lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautapropa.**

Deialdiaren lege-erreferentzia: Elortzibarko Alkatetzak 2025eko irailaren 10ean eman 2025-1116 Ebazpena (2025eko urriaren 2an argitaratua, 197. NAOn).

**ELORTZIBARKO EUSKARA TEKNIKARI  
IZATEKO HAUTAGAIENTZAKO  
LEHENENGO PROBA**

Lehenengo ariketa: araudiaren ezagutza

Proba mota: 4 aukerako test galdetegia

Galdera kopurua: 50

Ordezko galderak: 5

Proba egiteko denbora: bi ordu

Noainen, 2025eko abenduaren 13an

**EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIALDERA JOAN,  
HAS ZAITEZKEELA ESAN ARTE**

**BEHIN PROBA AMAITUTA,  
ITXARON ESERITA JARRAIBIDEAK JASO ARTE**

**1. Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, aukeratu baieztapen OKERRA:**

- a) Gizabanakoen eta giza taldeen ideologia, erlijio eta kultu askatasuna bermatzen da.
- b) Ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.
- c) Administrazio Publikoek gizabanakoen erlijioari buruzko informazioa beti eskatu behar dute.
- d) Erlijio batek ere ez du izango estatu izaerarik.

**2. Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako eskubideak aitortu eta babesten dira:**

- a) Iritziak askatasunez adieraztea eta zabaltzea.
- b) Ekoizpen eta sorkuntza artistikoa.
- c) Edozein hedabideren bidez egiazko informazioa komunikatzea edo jasotzea.
- d) Aurreko guztiak.

**3. Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, aukeratu baieztapen OKERRA:**

- a) Heziketa erlijiosoa aukeratzea ez da gurasoen eskubidea.
- b) Oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.
- c) Unibertsitateen autonomia aitortzen da.
- d) Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea.

**4. Zein urtetan sinatu zen Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako Gutuna?**

- a) 1968an.
- b) 1980an.
- c) 1992an.
- d) 2014an.

**5. Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako Gutunean zein arlo EZ da berariaz jorratzen?**

- a) Irakaskuntza.
- b) Zergak.
- c) Justizia.
- d) Osasuna.

**6. Non onartu zen Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako Gutuna?**

- a) Londresen.
- b) Parisen.
- c) Erroman.
- d) Estrasburgon.

**7. Nor arduratzen da Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako Gutunaren betetze mailaren jarraipenaz?**

- a) Nazioarteko Justizia Auzitegia.
- b) Unesco.
- c) Europako Banku Zentrala.
- d) Europako Kontseilua.

**8. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera:**

- a) Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.
- b) Nafarroako euskalkiek ez dute errespetu eta babes berezirik izanen.
- c) Nafarroako euskalkien erabilera legez arautuko da.
- d) Ez dago euskalkien gaineko aipamenik.

**9. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:**

- a) Eremu mistoan euskara hizkuntza ofiziala da.
- b) Nafarroako toki entitate guztiek euskararen ordenantza onartu behar dute.
- c) Eremu euskaldunean euskara ez da hizkuntza ofiziala.
- d) Nafarroako toki entitateek euskararen ordenantza onartu ahal izango dute.

**10. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, nor izanen da hizkuntza arauak ezartzeko erakunde aholku emaile ofiziala?**

- a) Euskalgintzaren Kontseilua.
- b) Euskaltzaindia.
- c) Kultura Departamentua.
- d) Hizkuntza Politika Saila.

**11. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, zein da eremu mistoko udalerria?**

- a) Arbizu.
- b) Galar.
- c) Lantz.
- d) Ultzama.

**12. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera:**

- a) Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko administrazio unitatea sortuko du.
- b) Nafarroako Administrazio Publiko guztiek itzulpen unitateak sortuko dituzte.
- c) Nafarroako Gobernuak edozein hizkuntzatatik euskararako itzulpen unitatea sortuko du.
- d) Nafarroako toki entitate guztiek itzulpen unitateak sortuko dituzte.

**13. Euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, zer da ele biko lanpostua?**

- a) Euskara ezagutzea nahitaezkoa duen lanpostua.
- b) Euskara merezimendu gisa baloratzen den lanpostua.
- c) Euskaraz dakien langile batek aldi baterako betetzen duen edozein lanpostu.
- d) Lanpostu guztiak dira ele bikoak, arreta ele biz egitea esleitu ahal zaielako.

**14. Euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, aukeratu baieztapen OKERRA eremu ez-euskaldunari dagokionez:**

- a) Hizkuntza paisaia ele bitan egon daiteke.
- b) Webguneetako informazioa bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko da.
- c) Kanpo komunikazioak ele biz idatz daitezke.
- d) Herritarrek erabiltzeko inprimakiak ele biz idatz daitezke.

**15. Euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, zein euskara mailak eska daitezke ele biko lanpostuetan?**

- a) EGA titulua bakarrik.
- b) Edozein maila, A1etik C2raino.
- c) B1, B2 edo C1.
- d) C1 eta C2 bakarrik.

**16. Euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, nola egiaztatuko da euskararen ezagutza maila?**

- a) Euskaltegietako bertaratze ziurtagirien bidez.
- b) Ofizialki onartutako titulu eta ziurtagirien bidez.
- c) Hautapropa euskaraz eginez bakarrik.
- d) Unibertsitateko tituluaren bidez bakarrik.

**17. Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko irizpideak arautzen dituen 5/2018 Foru Dekretuaren arabera, zein da ZUZENA?**

- a) Igantzi - Yanci.
- b) Igantzi.
- c) Yanci.
- d) Yanci/Igantzi.

**18. Nafarroako Biziguneen Izenak Erabiltzeko Irizpideak arautzen dituen 5/2018 Foru Dekretuaren arabera, zein da ZUZENA?**

- a) Elortz/Elorz.
- b) Elortz - Elorz.
- c) Elorz-Elortz.
- d) Elorz / Elortz.

**19. Euskarazko ikastaroak egiteko konpentsazioak eguneratzen dituen 195/1993 Foru Dekretuaren arabera, zein ikastaro mota EZIN du eskaini Foru Administrazioak?**

- a) Barnetegia (logelak eta otorduak barne).
- b) Ikastaro estentsiboa.
- c) Ikastaro trinkoa.
- d) Euskara birziklatzeko ikastaroa.

**20. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutua (NAPLE) onesten duen 251/1993 Foru Dekretuaren 22. artikuluen arabera, funtzionarioak ondoko egoeraren batean egon daitezke:**

- a) Jarduneko zerbitzuan, eszedentzian, baimen berezian edo zerbitzu eginkizunetan.
- b) Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan, eszedentzian edo eginkizun-gabeturik.
- c) Jarduneko zerbitzuan, izendapen librean, eszedentzian edo eginkizun berezian.
- d) Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu eginkizunetan, izendapen librean edo eginkizun-gabeturik.

**21. NAPLE onesten duen 251/1993 Foru Dekretuaren 56. artikulua arabera, zeintzuk dira jarduneko zerbitzuan dauden funtzionarioen betebeharrak?**

- a) Zerbitzuan ez dauden lankideen eginkizunetan horien ordezkapena egitea.
- b) Estatutuetan ezarritako bateraezintasunen araubidea betetzea.
- c) Sekretu profesionala gordetzea.
- d) Aurreko guztiak.

**22. Sektore Publikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 38. artikulua arabera, egoitza elektronikoari dagokionez:**

- a) Herritarrentzat eskuragarri egotea ez da nahitaezkoa.
- b) Enpresa pribatu batek izan dezake horren titulartasuna.
- c) Herritarrentzat eskuragarri egon behar du telekomunikazio sareen bidez.
- d) Arau orokor gisa, sarbiderako ez da identifikaziorik eskatuko.

**23. Sektore Publikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 46. artikulua arabera:**

- a) Dokumentuak elektronikoki gordetzea ez da beharrezkoa.
- b) Dokumentuak lehentasunez paperean gordeko dira, dokumentu elektronikoak inprimatuz.
- c) Administrazio bakoitzak erabakiko du zein dokumentu gorde elektronikoki eta zein ez.
- d) Administrazio jarduketetan erabilitako dokumentu guztiak bitarteko elektronikoen bidez biltegitratuko dira, ezinezkoa denean izan ezik.

**24. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea (APAPE) onesten duen 39/2015 Legearen 4.1. artikulua arabera, prozeduran interesduntzat jotzen dira:**

- a) Espedienteari hasiera eman diotenak bakarrik.
- b) Prozedura hasi zuenaren ezkontideak eta jaraunsleak bakarrik.
- c) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketen eskubideak dituztenak, nahiz eta prozedurari hasiera eman ez.
- d) Eskubide kolektiboaren titularrak bakarrik.

**25. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 16.4. artikulua arabera, interesdunek Administrazio Publikoei zuzentzen dizkieten agiriak non EZ dira aurkeztu behar?**

- a) Banku bulegoetan.
- b) Xede duten administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan.
- c) Posta bulegoetan.
- d) Erregistro bulegoetan.

**26. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 41.1. artikuluaaren arabera, jakinarazpenak baliozkoak izango dira, baldin eta egiaztatzen badute:**

- a) Interesdunak bakarrik jasotzea edo eskuratzea.
- b) Ordezkarriak bakarrik jasotzea edo eskuratzea.
- c) Interesdunak edo haren ordezkarriak jasotzea edo eskuratzea.
- d) Interesdunak gaitutako notarioak bakarrik jasotzea edo eskuratzea.

**27. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 114. artikuluaaren arabera, administrazio-bidea amaitzen dute:**

- a) Alegazioek.
- b) Gora jotzeko errekurtsioen ebazpenek.
- c) Prozeduraren abiarazle diren akordio, hitzarmen edo kontratuek.
- d) Proposamen txostenek.

**28. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 24.4. artikuluaaren arabera, isiltasun administratiboa gertatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz egingo da espedientea ebazteko gehienezko epea amaitzen denetik...**

- a) 10 eguneko epean.
- b) Ahalik eta eperik laburrenean, eta, nolana ere, 10 egunetan.
- c) 15 eguneko epean.
- d) 20 eguneko epean.

**29. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 23.1. artikuluaaren arabera, ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea luzatzea:**

- a) Ezin da izan prozedura izapidetzeko ezarritakoa baino handiagoa.
- b) Prozedura izapidetzeko ezarritako epearen % 50 baino handiagoa izango da.
- c) Ezin da egin.
- d) Ebazteko eskumena duen organoak zehazten duen eperako izango da, mugarik gabe.

**30. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 30.7. artikuluaaren arabera, egun baliogabeen egutegia, epeak zenbatzeko:**

- a) Urtero argitaratu behar da azaroaren 30ean.
- b) Autonomia erkidegoek argitaratzen dute, baina ez die eragiten toki entitateei.
- c) Autonomia erkidegoek argitaratzen dute eta toki entitateei aplikatuko zaie.
- d) Egutegia ez da dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar.

**31. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 31.2. artikularen arabera, Administrazio Publikoen erregistro elektronikoko epeak zenbatzen hasteko:**

- a) Gobernuaren ordezkariak jasotako data eta ordua hartuko dira kontuan.
- b) Posta bulegoan jasotako data eta ordua hartuko dira kontuan.
- c) Gobernuaren ordezkariak edo posta bulegoan jasotako data eta ordua hartuko dira kontuan.
- d) Erregistro elektronikoa aurkeztutako data eta ordua hartuko dira kontuan.

**32. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 39. artikularen arabera, administrazio egintzek ondorioak izango dituzte:**

- a) Ematen diren egunetik, egintza horietan besterik xedatu ezean.
- b) Jakinarazpena bidaltzen den egunetik.
- c) Jakinarazpena jasotzearen egiaztagiria jasotzen den egunetik.
- d) Jakinarazpena onartu edo ukatzen den egunetik.

**33. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 41.5. artikularen arabera, interesdunak edo haren ordezkariak administrazio egintza baten jakinarazpena ukatzen badu:**

- a) 3 egun barru, berriro saiaturik da jakinarazpena egiten.
- b) Izapidea gauzatu joko da eta prozedurak aurrera jarraituko du.
- c) Jakinarazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- d) Jakinarazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**34. Nafarroako Toki Administrazioa arautzen duen 6/1990 Foru Legearen 37. artikularen arabera, kontzejuek:**

- a) Nortasun juridikoa dute.
- b) Atxikita dauden udalerriek baino lurralde eta biztanle gehiago izan ditzakete.
- c) Ez dute udalerririk izan behar.
- d) Ezin dute nortasun juridikorik izan.

**35. Nafarroako Toki Administrazioa arautzen duen 6/1990 Foru Legearen 47. artikularen arabera, mankomunitateak:**

- a) Beren helburuetan ezin izanen dituzte elkartutako udalen eskumen guztiak sartu.
- b) Arau orokor gisa, ez dute zertan estatutuak onartu.
- c) Udal bakar baten menpe egiten dute lan.
- d) Ezin dute nortasun juridikorik izan.

**36. Nafarroako Toki Administrazioa arautzen duen 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua arabera, udal ordenantzak:**

- a) Ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar.
- b) Jendaurrean egoteko gutxienerako eperik ez dago.
- c) Osoko bilkuran onetsiko dira.
- d) Ez dira jendaurrean egon behar, erreklamaziorik ez baita onartzen.

**37. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3.1. artikulua arabera, honako hauek dira lurraldeko toki erakundeak:**

- a) Udalerriak bakarrik.
- b) Probintziak bakarrik.
- c) Mankomunitateak eta probintziak bakarrik.
- d) Udalerriak, probintziak eta uharteak (Balearretan eta Kanarietan).

**38. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 11.2. artikulua arabera, udalerriaren elementu dira:**

- a) Lurraldea bakarrik.
- b) Lurraldea eta ordenantzak bakarrik.
- c) Lurraldea, biztanleria eta antolaketa.
- d) Biztanleria eta ordenantzak.

**39. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 20.1. artikulua arabera, udal guztietan daude:**

- a) Alkatea bakarrik.
- b) Tokiko Gobernu Batzarra bakarrik.
- c) Alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura.
- d) Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Berezia.

**40. Gardentasunari buruzko 5/2018 Foru Legearen 5. artikulua arabera, zein da publizitate aktiboaren printzipioa?**

- a) Aldez aurretik aukeratutako eta editatutako informazioa borondatez argitaratzea.
- b) Administrazioak bere esku duen informazioa eta bere jarduketari buruzkoa ematea eta zabaltzea etengabe, egiaz eta modu objektiboan.
- c) Jendaurreko informazioaren eskaerei erantzutea bakarrik.
- d) Administrazio espedienteetan sarbidea eskatzeko eskubidea bakarrik.

**41. Gardentasunari buruzko 5/2018 Foru Legearen 8.1. artikulua araberaz, zein da informazio publikoaren arduraduna duen unitatea udaletan?**

- a) Alkatetza bakarrik.
- b) Osoko bilkura.
- c) Alkatetza eta idazkaritza nagusia bakarrik.
- d) Udalak izendatzen duen unitatea.

**42. Gardentasunari buruzko 5/2018 Foru Legearen 11.1. artikulua araberaz, Udalaren ardura da informazio publikoaren inbentarioa egitea eta informazio hori:**

- a) Astero zabaltzea.
- b) Hiru hilean behin zabaltzea.
- c) Hiru urtean behin zabaltzea.
- d) Informazioa zabaltzea ez da betebeharra.

**43. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 8. artikulua araberaz, dirulaguntzak honako printzipio hauen araberaz kudeatuko dira:**

- a) Publizitatea, lehia eta subjektibotasuna.
- b) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.
- c) Dirulaguntzaren hartzaileak ezarritako helburuak betetzea.
- d) Publizitatea, berdintasuna eta diskriminazioa.

**44. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22. artikulua araberaz:**

- a) Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka erregimenean izapidetuko da.
- b) Ezin da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko dirulaguntzarik eman.
- c) Dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira aurrekontu orokorretan izendun gisa aurreikusitakoak, arautzen dituzten hitzarmenetan eta arauetan jasotako baldintzetan.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**45. Datu pertsonalen babeserako 3/2018 Lege Organikoaren 3. artikulua araberaz, hildakoaren datuak eskuratzeko edo ezabatzeke eskatu ahal izango dute:**

- a) Interesduna den edozein hirugarrenek.
- b) Ezkontideak edo ezkontidearen pareko lotura afektiboa duen pertsonak bakarrik.
- c) Familia arrazoiengatik lotutako pertsonak eta jaraunseleak, betiere hildakoak adierazitako borondatea kontuan hartuta.
- d) Ogasun Ministerioak bakarrik.

**46. Datu pertsonalen babeserako 3/2018 Lege Organikoaren 5.1. artikulua arabera, nork du konfidentzialtasun betebeharra?**

- a) Langile publiko batzuk bakarrik.
- b) Edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek.
- c) Datuen Babeserako ordezkariak bakarrik.
- d) Izapidearen arduradunek bakarrik.

**47. Datu pertsonalen babeserako 3/2018 Lege Organikoaren 7.1. artikulua arabera, adingabe baten datu pertsonalen tratamenduari dagokionez:**

- a) Ezin da adingabeen datu pertsonalen tratamendurik egin.
- b) Nahitaezkoa da beti gurasoen baimenarekin egitea.
- c) Haren adostasunean oinarritu ahal izango da 14 urtetik gorakoa denean soilik.
- d) Gurasoen edo legezko tutoreen baimena inoiz ez da nahitaezkoa.

**48. Datu pertsonalen babeserako 3/2018 Lege Organikoaren III. Tituluaren arabera, zein EZ da herritarren eskubidea?**

- a) Ezabatzeko eskubidea.
- b) Berehalakotasunerako eskubidea.
- c) Aurka egiteko eskubidea.
- d) Eramangarritasunerako eskubidea.

**49. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren 6.1. artikulua arabera, sexuan oinarritutako zuzeneko bereizkeriatzat hartuko da:**

- a) Sexuaren arabera tratatu txarragoa jasotzea.
- b) Sexuaren arabera abantailak ematea.
- c) Eragin kaltegarriak izan ditzaketan egintza neutroak.
- d) Egintza positiboaren eza.

**50. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren 15. artikulua arabera, nori dagokio emakumeen eta gizonen arteko tratatu berdintasunaren printzipioa aplikatzea?**

- a) Toki entitateei bakarrik.
- b) Estatuko Administrazio Orokorriari bakarrik.
- c) Justizia Administrazioari bakarrik.
- d) Botere publiko guztiei.

**O1. NAPLE onesten duen 251/1993 Foru Dekretuaren 9. artikuluaaren arabera, zein egintzaren bidez hartzen da funtzionario publiko izaera?**

- a) Izendapena, hautagaiari jakinaraziz.
- b) Izendapena, behin NAOn argitaratuta.
- c) Plazaren jabetza hartzea, izendapen ebazpenak horretarako zehazten duen egunean.
- d) Hasierako prestakuntza prozesua gainditzea.

**O2. NAPLE onesten duen 251/1993 Foru Dekretuaren 11.2. artikuluaaren arabera, zein kasutan eska daiteke funtzionario izaera berreskuratzea?**

- a) Erretiroa hartu ondoren.
- b) Aldez aurretik zerbitzutik kentzean.
- c) Nahitaezko eszedentzia egoeran.
- d) Nazionalitate espainiarra berreskuratuz gero, funtzionario izaera berriz eska daiteke.

**O3. NAPLE onesten duen 251/1993 Foru Dekretuaren 28.1. artikuluaaren arabera, nahitaezko eszedentzian deklaratuko dira:**

- a) Borondatezko eszedentzian dauden eta 3 urteko epean lanean hasten ez diren funtzionarioak.
- b) Sexu jazarpenagatik arau hauste larria egiteagatik zehatutako funtzionarioak.
- c) Bateriaezintzat jotako jardueran aritzen diren funtzionarioak, jarduera horri uko egiten ez badiote.
- d) Foru parlamentari izendatzen diren funtzionarioak.

**O4. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 5.3. artikuluaaren arabera, izapide hutseko egintzen kasuan:**

- a) Ordezkaritza badela joko da.
- b) Ordezkaritza egiaztatzea eskatzen da beti.
- c) Izapideak berariaz eskatzen badu bakarrik egiaztatu behar da ordezkaritza.
- d) Ondare erantzukizuneko prozeduretan eta zehapen prozeduretan ordezkaritza izatea baino ez da egiaztatu behar.

**O5. APAPE onesten duen 39/2015 Legearen 123. artikuluaaren arabera, berraztertzeako errekurtsuari dagokionez:**

- a) Ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, berraztertzeako errekurtsua ebatzi arte.
- b) Egintzak administrazio bidea amaitzen ez duenean jarri ahal izango da.
- c) Egintza eman ez duen beste organo bati aurkeztu beharko zaio.
- d) Edozein unetan aurkez daiteke.